

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 1476

*602/2024 EBAZPENA, martxoaren 7koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, Ainhoa Gómez Elorrieta andrea Santa Marina Ospitaleko Pertsonen zuzendari kargutik kentzea xedatzen duena.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren abuztuaren 2ko 769/2018 Ebazpenaren bidez, Ainhoa Gómez Elorrieta andrea Santa Marina Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari izendatu zen (2018ko abuztuaren 20ko EHAA).

Ekainaren 26ko 8/1997 Legea, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretua eta aplika daitezkeen gaineko xedapenak aztertu eta gero, zuzendaritza nagusi honek hau

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Ainhoa Gómez Elorrieta andrea Santa Marina Ospitaleko Pertsonaleko zuzendari kargutik kentzea, eta egindako lanagatik eskerrak ematea.

Bigarrena.– Ebazpen honek 2024ko martxoaren 17ko lanaldia amaitzean izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunari, Santa Marina Ospitaleari eta Plangintza eta Kudeaketa zuzendariordetzari jakinaraztea.

Laugarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtsua aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 7a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.